

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Londres, 1908



Ezkerretik eskuinera, Londresko Olinpiar Jokoak iragartzeko bi afixa, eta igeriketa probatuko baten argazkia, jokoetarako propio eraikitako eta White City estadioan bertan paratutako igerilekuan.

NAPOLI, 1907KO APIRILAREN 7A. Vesubio mendien erupzioak Italia hegoaldeko hiria suntsitu zuen erabat. Handik urtebetera Olinpiar Jokoak Erroman burutzekoak ziren. Baina Italiako gobernuaren ahalegin guztiak Napoli berreraikitza bideratu ziren, eta jokoak beste baterako utzi zituzten. Hiru urte lehenago Berlinetik ere hautagaitza aurkeztu arren, Londres aukeratu zuten ordezkari, eta urtebetean 68.000 lagunentzako tokia zuen White City estadioa prest zegoen Ingalaterrako hiriburuan.

Jokoak 1908ko apirilaren 27an inauguratu zituen Eduardo VII.a erregeak. Atletak eta ekitaldiak egun gutxitan biltzeko gaurko erraztasunik ez zegoenez, urriaren 31ra arte luzatu ziren. 2.000tik gora atletek parte hartu zuten 21 kiroltako 110 probatan. 22 herrialdeko ordezkariak joan ziren eta, lehen aldiz, herrialde desfilea egin zen. Lehenengoz (ez azkenekoz) arazo politikoak azaleratu ziren desfilean: atleta irlandarrek uko egin zioten bandera britainiarren atzetik joateari, finlandiarrek ere ez zuten ikur errusiarraren atzetik ibili nahi izan, Suediako bandera ez zen azaldu

eta estatubatuarrek ez zioten erregeari erreberentziarik egin.

Kirol esparruari dagokionez, etxekoak izan ziren garaile, 100 urte geroago gertatu bezala; Erresuma Batuak 145 domina lortu zituen, diotenez, etxeko epaileei esker neurri handi batean. Jokoetako izarra, ordea, Ray Ewry izan zen. Hirugarrenez altuera jauzia irabazita, jokoan historian zortzi urrezko domina irabazten lehena izan baitzen estatubatuarra; mende bat geroago Ewryren herrikide batek joko bakarretan lortu berri du balentria hori.

Baina Londresek garaipen garrantzitsuagoa lortu zuen olinpismorako. Aurreko hiru edizioen porrotaren ondoren, ingelesek gaur egungo antolaketa eta egituraren oinarriak ipini zituzten, proba ugari gehitu eta jendetza bildu. Guztia, urtebete eskasean antolatutako jokoetan.

Pierre de Coubertin-en espiritua zabaldu zen, zentzu guztietan. Baroiaren misoginia bere espiritu olinpikoa bezain handia zen, eta Londresko jokoetan, 2.035 atletaren artean, 36 emakumezko bano ez zuten parte hartu. Hobetu beharreko marka kaskarrak ere utzi zituzten beraz. ■

ARRASTOAK

ERROMA BIZIRIK! izenburupean, erromatar kulturak zineman izan duen isla aztertzen ari dira Irungo Oiasso Erromatar Museoan, irailaren 30era arte.

28 paneletan banatutako argazki erakusketaz gain, hilabeteko lehen larunbatean antzinako zibilizazio handi haren inguruko film luzeak, laburmetraiak eta

dokumentalak eskaintzen dituzte.

Gainera, hilabete hauetan bisitariak animaziozko film labur bat egiteko tailerretan parte hartzeko aukera izango dute; gidoiek Antzin Aro klasikoa izan behar dute hizpide. Argibide eta informazio gehiago www.oiasso.com helbidean eskura daiteke.



Erakusketako argazkietako bat: *Ben Hur* filmeko protagonistak Vespa gaian, Cinecittà inguruetan.